



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

2021eko EKINTZA-PLANA & GJH / 2030 AGENDA



LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN PAPERA 2030 AGENDAREN ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEN AURREAN

2030 Agendaren zentzu eraldatzailea hertsiki lotuta dago haren izaera unibertsalistarekin, eta horrek dakar eragile politiko, sozial eta ekonomiko guztiak aktiboki mobilizatu behar direla **Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)** lortu ahal izateko; halaber, horrek eskatzen du sektore pribatuak garapen-politikei egiten dien ekarpenak duen rola indartu eta balioetsi behar dela.

2030 Agendak sektore pribatua funtsezko kideztat aitorzen du, "GJHen ezarpena babesteko mundu mailako parte-hartze sendoan". Hala, politikak kontsultatzeko talde sozial bat izateaz gain sektore pribatuak badu funtsezko beste eginkizun bat "elkarte publiko-pribatuen eta gizarte zibilaren" parte aktibo gisa. Ezinbestekoa da aktore guztien –gobernuak, enpresak, gizarte zibila, akademia– arteko beharrezko elkarrizketa politikoa eta gutxieneko oinarritzeko adostasunak "inor atzean gera ez dadin"; hezkuntzarako eta osasunerako eskubideak ziurtatuko dituzten kohesio sozialeko mekanismoak bermatzeko, sarbide unibertsalistarekin eta kalitatezko arretarekin; lan duinerako sarbide orokorra sustatzeko, egonkortasunean,

ongizatean eta berdintasunean oinarritzen den kalitatezko enpleguaren alde egiten duten politiken bidez; irizpide progresiboak eta birbanatzaileak dituzten zerga-politikak bultzatzeko; genero-berdintasunaren aldeko konpromisoa sendotzeko eta hedatzeko; ekoizpen eta kontsumo eredu jasangarrien modeloen orokortzea errazteko; matrize energetikoaren eraldatzean aurrera egiteko eta ingurumenaren babesa defendatzeko; desparekotasun eta zaugarritasun egoera larrian diren pertsonak eta taldeak babesteko.

Euskadin, beharrezkoa da erakunde publiko eta pribatu guztien konpromisoa. Erakunde orok bere estrategiak eta jarduerak GJHein lerrotatu behar ditu, proposatutako helburuak lortzeko funtsezko eragile bihurtuz eta aukera hobek eta ongizatea sortzen lagunduz, inor atzean ez uzteko agindupean. Horregatik guztiagatik, **Lehiaren Euskal Agintaritzaren** konpromisoa ere beharrezkoa da, bere **Plan Estrategikoa** eta **Ekintza Plana** Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrotatuz.

2018-2020 PLAN ESTRATEGIKOA 2030 ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEN IKUSPEGITIK AZTERTUTA

Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburua da merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea, **Euskal Autonomia Erkidegoaren** lurralde-eremuan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.

Lehiaren Euskal Agintaritzak onartua du bere **Plan Estrategikoa 2018-2022** aldirako. Aipatu Plan Estrategikoa hausnarketa eta definizio estrategiko prozesu baten emaitza da eta **4 Helburu Estrategiko**, **10 Jarduera-ildo** eta **38 ekintza**n egituratzen da.



HELBURU ESTRATEGIKOA (OHE)	JARDUERA-ILDO ESTRATEGIKOA (JIE)
[HE1] Erakundea sendotu eta ikusarazi	[JIE 1.1] Ikusgarritasuna eta sinesgarritasun instituzionala [JIE 1.2] Lankidetzeta beste lehia agintaritzekin eta lotutako erakundeekin
[HE2] Merkatuetan lehia defendatu	[JIE 2.1] Merkatuen zaintza proaktiboa [JIE 2.2] Zehapen-prozeduraren aplikazio eraginkorra
[HE3] Lehiaren sustapena indartu	[JIE 3.1] Merkatuaren ezagutza sakondu [JIE 3.2] Lehiaren kultura sustatu [JIE 3.3] Araudiaren esparruan zaintza eta sustapena [JIE 3.4] Kontsulta-organo gisa aritzea
[HE4] Bikaintasun-operatiboa lortu	[JIE 4.1] Talde teknikoaren profesionalizazioa eta espezializazioa [JIE 4.2] Kudeaketa aurreratu berritzailea

2030 Agendak eremu ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa bere gain hartzen dituzten izaera integratuko eta zatiezineko **17 Helburu** eta **169 Xede** proposatzen ditu. 2030 Agendak Lehiaren Euskal Agintaritzaren Estrategian kontuan hartu beharreko funtsezko erreferenteetako bat izan behar du.

Zentzu horretan, Garapen Jasangarrirako Helburuak Lehiaren Euskal Agintaritzaren Estrategian barneratzea funtsezko elementua izango da erakunde guztietan izango den inpaktu positiboa handitzeko eta interesekoak diren talde guztiekin diren harremanak kudeatzeko.



EKINTZA PLANA 2021

HELBURU ESTRATEGIKOA #1. Erakundea eta bere jarduera sendotu eta ikusarazi

1.1 EAEn esparruan jarduera instituzionalari jarraipena eman, bereziki, eragile ekonomikoari eta erakundeei gerturatuz



- Enpresekin aliantza publiko-privatuak sortuz industria-sare jasangarri bat eratuko duten egitasmoen egikaritzea sustatzeko.



- Bekak sortuz enplegua aurkitzeko beharrezkoak diren trebetasunak, tresnak eta aintzatespenak eskaintzeko.



- Enpresei praktika jasangarriak hartzeko bihotz emanez.
- Biztanleriaren artean kontsumo arduratsu eta jasangarrirako jarraibideak sustatzeko kanpainak eginez eta/edo kontsumitzaileen erakundeen eta bestelako erakundeen bidez.
- Erakunde publikoekin aliantzak sortuz kontsumo jasangarriko modalitateak sortzera laguntzen duten egitasmoak egikaritzeko.



- GJH 16aren betetzea zaintzen duen erreferentziako erakundea Euskadin, merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak sustatuz, bermatuz eta hobetuz.
- Hiritarren esku den informazioaren gardentasuna eta informazio horrekiko irisgarritasuna sustatuz eta hiritarren parte-hartzea ahalbidetuz.



- Aliantza publiko-privatuak antolatuz enpresa pribatuekin sareak eratzeko.
- Lankidetzarako tresna eta ekimen bateratuak sortuz eta programa bateratuetan parte hartuz, Euskadin lehia bermatzeko.

1.2 Lehiaren agintaritza autonomikoekiko eta MLBNrekiko lankidetzan sakondu



- Merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak bermatzen dituzten legeak eta politikak lagunduz eta sustatuz.



- Lehiaren beste agintaritza autonomiko batzuekin lankidetzan arituz baterako lan-formulak bilatzeko.
- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarekin lankidetzan arituz baterako lan-formulak bilatzeko.

1.3 Estatuko eta nazioarteko kongresu eta foroetan parte hartu



- Ikastaroetan eta ekitaldietan parte hartuz, unibertsitateekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan, eta liburuak eta artikulatuak argitaratuz, kalitatezko prestakuntza eta hezkuntza sustatzeko.



- Enpresa-eremuan emakumeen ikusgarritasuna sustatzen duten ekitaldietan parte hartuz.



- Enplegua aurkitzeko beharrezkoak diren trebetasunak, tresnak eta ezagutzak ematen dituzten beken sorrera sustatuz.



- Europako eta nazioarteko jardunaldi eta ekitaldietan parte hartuz, hainbat eragileren artean jardunbide egokiak partekatzeko.
- Aliantza publiko-pribatuak antolatuz, mundu akademiko espezializatuarekin lankidetzan.
- Zabalkunde-ekintzetan eta argitalpenetan parte hartuz, hainbat eragileren artean jardunbide egokiak partekatzeko.
- Hainbat eragileren artean jardunbide egokiak partekatzeko ekitaldietan parte hartuz.

1.4 Lehiaren Defentsarako Lege berriaren onarpenari begira, instituzio-lana burutu



- Belaunaldi berriak lehiaren defentsaren inguruan trebatuz, ikastetxeetan hitzaldiak emanez.



- Pertsonen arteko desberdintasunak murrizteko neurrien ezarpenaren bidez pertsona guztien ulermena sustatuz.



- Merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak bermatzen dituzten legeak eta politikak lagunduz eta sustatuz.



- Beste hainbat erakunderekin lankidetzan arituz helburu komunak lortzeko.

1.5 Webgune berria abiarazi



- Hiritarren esku den informazioaren gardentasuna eta irisgarritasuna sustatuz.

HELBURU ESTRATEGIKOA #2. Merkatueta lehia defendatu

2.1 Lehiaren aurkako praktikak antzemateko baliabide propioak indartu, bereziki kartelak, jokabide larrienak direlako



- Lehia murrizten duten jokabideen aurrean defentsa-lanak egiteko baliabideak hartuz, hazkunde ekonomiko jasagarria bermatzeko.



- Enpresen berrikuntza-gaitasuna eragozten duten merkatuko oztopoen aurrean erantzunez.



- Kolusio-jardunbideek edo nagusitasun-egoeraren abusuak merkatuetan sortzen dituzten desparekotasunak murrizteko ekintzak eginez.



- Merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak sustatuz, bermatuz eta hobetuz.

2.2 Kolusio-jardunbideen azterketa kontratazio publikoan, merkatu-banaketaren, ABEEak eratzearen edo prezio-akordioen bidez



- Lehia murrizten duten jokabideen aurrean defentsa funtzioak erabiliz hazkunde ekonomiko jasagarria bermatzeko.



- Enpresen berrikuntzaren garapenean oztopo izan daitezkeen kontratazio publikoko kolusio-jardunbideen aurrean erantzunez.



- Kolusio-jardunbideek edo nagusitasun-egoeraren abusuak merkatuetan sortzen dituzten desparekotasunak murrizteko ekintzak eginez.



- Kontratazio publikoko praktika jasangarriak eta legeriaren araberakoak sustatuz.



- Merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak sustatuz, bermatuz eta hobetuz.

2.3 Mugaz haraindiko merkatuetako kolusio-jardunbideen analisia



- Lehia murrizten duten jokabideen aurrean defentsa funtzioak erabiliz hazkunde ekonomiko jasangarria bermatzeko mugaz haraindiko esparruko sektoreetan.



- Enpresen berrikuntzaren garapenean oztopo izan daitezkeen mugaz haraindiko merkatuetako kolusio-jardunbideen aurrean erantzunez.



- Kolusio-jardunbideek edo nagusitasun-egoeraren abusuak merkatuetan sortzen dituzten desparekotasunak murrizteko ekintzak eginez.



- Merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak sustatuz, bermatuz eta hobetuz.

2.4 Behar handiagoan diren kolektiboei nagusiki eragiten dieten merkatu/sektore berezietan sakondu (jokoa, higiezin merkatua, etab.)



- Lehia murrizten duten jokabideen aurrean defentsa funtzioak erabiliz hazkunde ekonomiko jasagarria bermatzeko mugaz haraindiko esparruko sektoreetan.



- Kolusio-jardunbideek edo nagusitasun-egoeraren abusuak merkatuetan sortzen dituzten desparekotasunak murrizteko ekintzak eginez.



- Merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak sustatuz, bermatuz eta hobetuz.

HELBURU ESTRATEGIKOA #3. Lehiaren sustapena indartu

3.1 Euskadiko sektore ekonomiko garrantzitsuen inguruko azterlanak burutu



- Elikagaien eta horien deribatuen funtzionamendu egokia bermatzeko neurriak identifikatuz.



- Merkatuko sektoreen azterketa lege, politika eta jardunbide diskriminatzaileak diren ala ez aztertzeke eta baiezeko kasuetan horien egoera hobetzeko.



- Hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko ekintzak identifikatuz eta hiri eta komunitate jasagarrien sorrera sustatuz.

3.2 Arautzeari dagokionez, Euskadiko Arautzearen Hobekuntzaren inguruko Azterlana amaitu



- Legeak eta erregulazioak araudi eraginkorraren irizpideak jarraituz beteko direla lagunduko duten azterlanak eginez.



- Merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak sustatuz, bermatuz eta hobetuz.

3.3 Kontratazio publikoari dagokionez, kontratu txikien erabileraren azterketa



- Kontratazio publikoko praktika jasangarriak eta legeriaren araberakoak sustatuz



- Merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak sustatuz, bermatuz eta hobetuz.

3.4 Euskadiko laguntza publikoei buruzko txostena egiteko prozesua hasi



- Merkatuan lehia eta gardentasun baldintzak sustatuz, bermatuz eta hobetuz.

3.5 Euskadin eragin esanguratsua duten kontzentrazio ekonomiko operazioei buruzko azterketari jarraipena eman



- Euskadin eragin esanguratsua duten kontzentrazio ekonomikoak aztertzen dituzten azterlanak burutuz, hazkunde ekonomiko jasagarria bermatzeko xedearekin.



- MLBNrekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean arituz, kontzentrazioen kontrolaren arloan helburu komunak lortzeko.

3.6 Ikastaroak eta elkarlana Unibertsitatearekin eta bestelako erakundeekin



- Ikastaroak eta jarduerak antolatuz eta horrelakoetan parte hartuz formakuntza eta kalitatezko hezkuntza sustatzen duten Unibertsitateekin eta bestelako erakundeekin elkarlanean.



- Aliantza publiko-pribatuak antolatuz, betiere, mundu akademikoarekin eta bestelako erakundeekin elkarlana bilatuz.

HELBURU ESTRATEGIKOA #4. Bikaintasun operatiboa lortu

4.1 LEA/AVCko profesionalen eta langile berrien formakuntza planifikatu



- Etengabeko prestakuntzarako eta ikaskuntzarako aukerak eskainiz enplegatuei eta langile berriei, haien gaitasunak hobetzeko.

4.2 Genero-berdintasuna



- Emakumeen integrazioarekin, berdintasanarekin eta defentsarekin konpromisoa bultzatzeko programetan parte hartuz.
- Konpromisoak, neurriak eta helburuak jasotzen dituen berdintasan-plan bat sortuz.

4.3 Digitalizazio prozesua amaitu



- Hiritarren esku den informazioaren gardentasuna eta irisgarritasuna sustatuz.